

ESKOLA BIDEAK-IGE JM SANCHEZ MARCOS (KONTXA ESKOLA)

Red adscrita  Euskadi Aktiboa 

Temas

Infancia, Juventud, Actividad física.

Descripción

PROIEKTU HONEN BALOREAK:

HAURRAK ERDIGUNEAN JARTZEA: HAURREN AUTONOMIA ETA BENETAKO PARTE-HARTZEA

Parte-hartzea balio eta lan ildo nagusietako bat da Eskola Bideen egitasmoan, jendartearen eraldaketaren oinarria delako. Parte-hartzea, norbere izaeraren eraikuntzan ezinbesteko ezaugarri da, eta era berean, talde izaera edota herri proiektu integrala sortzeari begira, oinarri-oinarrizko tresna.

Parte-hartzearen inguruan hitz egiten dugunean, norberari eta komunitateari eragiten dioten erabakiak adierazteko, eta gizarteak horiek onartzeko gaitasunari buruz ari gara. Beraz, parte-hartze eskubidea izango da komunitateko edozein kidek, haur zein heldu, duen eskubiderik garrantzitsuenak.

Orain arte heziketaren munduan aritu garenok haurren nahiak eta beharrak identifikatzen ahalegindu gara, haurrak kontuan hartu gabe. Haurren gaitasunak alde batera utzi ditugu, beraien gaitasun emozionala, erabakitze ahalmena eta autonomia mugatuz. Haurren eskubideen alde egitea, gaur egun dugun hiri eta bizi eredua zalantzan aritzea bezala ulertzen dugu.

Hona hemen prozesu parte-hartzaile batek haurren parte-hartzea bermatzeko bete behar dituen baldintzak:

- Haurrak edozein proiektuan parte hartu dezake: Ekintza txikienetatik proiektu handienetara, baita espazioaren diseinua eta planifikazioa aurrera eramaten eta ebaluatzen ere.
- Haurrak komunitateko kide diren neurrian, erabakitze-esparruetan egoteko eskubidea daukate, eta beraien parte-hartzea bermatu behar dugu.
- Haurren parte-hartzea beraien eremu hurbilenean eman behar da, errealitateetik abiatuta eta bertan kokatua.
- Helburuekin bat datozen metodologia hurbilak eta denontzako eskuragarriak diseinatu behar dira.
- Haurrek beren parte-hartzeak balio duela, beraien egunerokotasunean aldaketak eragiten dituela eta gainontzeko herrikideen aitortza jasotzen duela nabaritu behar dute.
- Parte-hartzearen bidez lortutako haurren protagonismoak haurren ahalduntzea dakar.
- Parte-hartzeak, gainera, euskararen erabilera bultzatuko du.
- Genero ikuspegia kontuan izan, eta praktika hezkidetzailleak martxan jarriko ditu.

Eskola bidea haurren autonomia eta parte hartzea lantzeko ezinbesteko ekimena da gure ikuspegitik, haurren eta familien parte hartzea lantzeaz gain, beraien ahalduntzea sustatzen baita, baita herritarren oren arteko kohesioa ere.

KALEAK OINEZKOENTZAT BERRESKURATZEA, HERRI ETA AUZOEN ERALDAKETA

“Haurrak mugitzen direnean, gero eta maizago gurekin mugitzen dira, gure kotxean, atzeko jarlekuan. Modu honetan, haurrak ez du hiria ikusten, ez ditu bere ezaugarriak bereizten (...) Mugitzeko modu arraro honetan ez du ezer finkatzen, ez du bere espazioa

antolatzerik lortzen, ezin du bere hiria eraiki" (Francesco Tonucci, Haurren Hiria)
Haurrek espazio itxietan gero eta denbora gehiago igarotzen dutela eta kalean jolastu behar dutela aldarrikatzen dute askok. Baina horretarako, "bestelako hiriak behar ditugu, autoa protagonista izan ordez ingurumena eta herritar guztiok kontuan hartuko gaituzten hiri eta herriak. (...) Haurrak kalean dabiltzan hiria, hiri segurua da, ez haurrentzat bakarrik, zaharrentzat, elbarrituentzat eta hiritar guztientzat baizik" (Francesco Tonucci, Haurren Hiria)

OHITURA OSASUNTSUAK LANTZEA

Gaur egungo, bizimoduaren azkartzearen ondorioz, haur asko autoz eramaten ditugu ikastetxera: etxetik autora, eta autotik eskolarako ibilbideak eginez
Eskola Bideen egitasmoaren bitartez, ohitura osasuntsuak sustatu nahi ditu gure artean: haurrak oinez, bizikletaz zein patinetean joan ahal izateko bideak eratuz. Etorkizunerako ohitura osasuntsuak finkatuz, sedentarismoa eta gaur egunean gero eta gehiago diren osasun arazoak (asmak, obesitatea...) saihestu genitzake.

KOMUNITATEKO ERAGILEAK BARNE HARTZEN DITUEN LAN TALDEA OSATZEA (UDALA, ESKOLA, GURASOAK)

Eskola bideen eraikuntzan, hezkuntza eragile guztiak inplikatzeko oinarria da. Horregatik, parte-hartzeari garrantzi berezia eskainiz, hezkuntza komunitatea proiektuaren erdigunean jartzen dugu: umeak, gaztetxoak, hezitzaileak, gurasoak, auzokideak, merkatariak, ... Hezkuntza komunitateak du errealitatearen ezagutzen zabalena eta eurek erabaki eta landuko dituzte, era parte hartzailean, Eskola bide egokienak.
Umeen heziketa ardura kolektiboa dela eta elkarren arteko zaintza herritarren betebeharra dela ulertuta, helduak umeen aliatu bilakatzen dira ekimen honetan: merkatariak eta inguruko komertzio/bulegoetako langileak Eskola Bidearen bidelagun bihurtuz.

Contacto

ELVIRA FERNÁNDEZ - 680497923 - igekontxaeskola@gmail.com

Fecha de última actualización del recurso

04/08/2022

Situación actual del recurso

Activa

Localización

Calle GENERAL CONCHA 18 48010 Bilbao Bizkaia Euskadi España



Página web del proyecto

<http://Ampa Kontxa Ige Bilbo>

Imagen del Recurso

